



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urriaren 15a

123. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (13. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (14. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzak baldintzak alda ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuan herri lanen eskumena duen departamentua premiatzen da azter ditzan zenbait herritan trafikoaren abiadura moteltzeko elementuak paratzearen problematika eta horri buruzko araudia gaurkotzeko aukera. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikorako deialdia segurtasun juridikoz egin dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (16. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, apustuekin eta, bereziki, kirol apustuekin zerikusia duen gutzia arautzeko xedez. Carlos García Adanero jaunak aurkeztu du (17. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu erakunde demokratikoak indarrez hartzea, segurtasun-indarrei eraso egitea edo ordezkari demokratikoei jazarri edo eses-
tea dakarren indarkeriazko ekintza oro. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela Katalunia-ko gizartearen dauden jarrera politikoen artean hitz egitea eta negoziatzea. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak askatasunarekiko, demokraziarekiko eta eskubide zibil eta politikoezko konpromisoa adierazten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten du elkarrizketa soziala, Nafarroan garapen ekonomiko eta sozial orekatu bat lortzeko osagarri funtsezko eta estrategiko gisa. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hark bere aldetik Espainiako Gobernua premia dezan Alesbes-Faltzes tartean hasitako Abiadura Handiko Trenaren obrak geldiaraztera eta beste tarte edo azpitarterik ez esleitzera. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomiko horni ditzan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-material suntsikorak lortzeko zailtasunak dauzkaten ikasleen beharrezko erantzute aldera. Mozioa erretiratzea (20. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, erlijio islamikoaren ikasgaiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako garraio bideari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Francisco María Irizar Jáuregui jauna Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzea (23. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberaren Datu-babeserako Ordezkaria izendatzea (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 4an egindako Osoko Bilkuran, foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea

HITZAURREA

2017ko urtarrilaren 1ean hartu zuen indarra abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duenak.

Zenbait gorabehera gertatu dira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren indarraldian, eta, hori horrela, komeni da aipatutako foru legearen zenbait artikuluko berrikustea.

2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planeko espedienteen kudeaketa hobetzearen eta aurrekontuen plangintzarekin bat etor dadin inbertsioen finantzaketa, aldatu egiten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea, honako gai hauetan:

– Toki Inbertsioen Planaren aurrekontu-tratamenduari dagokionez –3. artikuluan jasota dagoena–, paragrafo berri bat eranstean da, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren konpromiso ekonomikoen egozpena aldatu eta ekitaldi desberdinetan egin ahal izateko, obren exekuzioari

buruzko aurreikuspenen arabera, betiere zerbitzu eskudunak txostena eman ondoren.

– Toki Inbertsioen Planaren ekarpenak beste laguntza batzuekin bateragarriak izateari dagokionez, betebeharrak erantsi da, kasua bada inbertsiora bideratzeko jasotzen diren beste funts batzuen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa frogatzeko.

– Salbuespeneko araubidea aldatzen da, eta, zehazki, araubide horri atxikitze baldintzak aldatzen dira, betebeharrak gisa ezarri araubide horri atxikitzea eskatu aurretik inbertsioa doitzea edo, posible denean, finantzaketa-formula alternatibo bat proposatzea. Laguntzaren norainokoa zuzenketa bat egiten da, halako moldean non BEZ kengarria ez duten inbertsioei dagokien BEZarekin gehikuntza egiten baita; eta betebeharrak gisa ezartzen da zerga-tasarentzat onestea eta mantentzea, obraren egiteak dirauen bitartean eta obra amaitu ondoko lau urteetan zehar, lurraren gaineko kontribuzioaren 0,20ko gutxieneko igoera bat, gaur egun indarrean dagoenarekin alderatuta.

– Larrialdiko prozeduraren erregulazioa aldatzen da, larrialdiaren kontzeptua egokitzearen Nafarroako kontratu publikoari buruzko foru araudian jasota dagoenera, eta argiago berezita ager daitezkeen bi prozedura desberdin: bata, larrialdiko jarduketetarako; eta bestea, larrialdiko jarduketak osatzeko beharrezkoak diren jarduketa osagarrietarako.

– Artikulu berri bat eranstean da, 22. bis artikulua, prozedura berri bat arautzeko; hots, hasierabaimenarena, erreserbako behin betiko zerrendan agertzen diren inbertsioak hastea ahalbidetzen duena, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren ondoren sartzeko eskubidea galdu gabe.

– Inbertsioak egiteko epeen ezarpenerako ahalmena, Toki Administrazioiko Zuzendaritzak duena, aukerakoa izanen da aurrerantzean, eta,

horrekin batera, epeak luzatzeko aukera ere ezartzen da, salbuespenez.

– Obraren hasierako ekarpena handitu egiten da, %50etik %60ra. Horrela, toki entitateen ahalmen ekonomikoa hobetzen da, eta, aldi berean, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari bide ematen zaio obren hasieran gastu portzentaje handiagoa exekutatzeke.

– Zehapen-araubide berri bat ezartzen da bi kasu hauetarako:

– Obren hasiera atzeratzen denean, bi hilabetez gehienez, salbu eta baimen berezi bat dagoenean.

– Inbertsioaren amaierari buruzko frogagiria epetik kanpo aurkeztea.

Horrela, lehen kasua kendu egiten da guztizko kanporatze-arrazoi gisa, eta bigarrena, berriz, kanporatze partzialeko arrazoi gisa.

– Uko egitea eta kanpo uztea bereizten dira, eta administrazio prozedurari buruzko oinarritzko legeriara jo beharra ezartzen da.

– Libreki erabaki beharreko inbertsioen araubidea aldatzen da, errazte aldera eskumenak udalei eskuordeturik dituzten kontzejuen edo egokitasun-txostena epean eskatzen ez duten kontzejuen erabakitze librearen kudeaketa, aukera emanez kontzeju horien udalek egokitasun-txostenak eskatzeko, inbertsioak exekutatzeke eta kasuan kasuko ordainketak tramitatzeke, eta epe berriak adierazten dira libreki erabaki beharrekoen ordainketak eskatzeko. 2018an exekutatu behar diren inbertsioetarako ezartzen da abenduaren 1a izanen dela azken eguna, eta 2019an exekutatu behar diren inbertsioetarako azaroaren 1a izanen dela azken eguna. Bi epe horiek luzatzen ahalko dira ziurtatzen bada toki entitatearen borondatearekin zerikusirik ez duten inguruabarrek eragotzi dutela epe horiek betetzea. Bestalde, aurrekontuan diru erabilgarria dagoenean, 2019rako emandako ekarpenak 2018an ordaintzea ahalbidetzen da.

– Tramitazioa erraztearren, aurkeztu beharreko dokumentazioa sinplifikatu egiten da, eta larrialdiko prozeduraren kasuan nahiz hasteko baimenaren kasuan dokumentazioa aurkezteari buruzko bi apartatu berri gehitzen dira.

Finean, aldaketa horien xedea da atzemandako akatsak zuzentzea, bikoizkeriak kentzea eta zenbait kontzeptu argitzea.

Artikulu bakarra. Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea aldatzea, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.

Honela aldatzen da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legea:

Bat. 3. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

“3. Konpromiso ekonomikoak kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoari edo ekonomikoei egotziko zaizkie, betiere kontuan hartuta Toki Inbertsioen Planaren gaineko araudia aplikatuzetik sortzen diren ordainketen aurreikuspena eta aurreko apartatuaren arabera ezarritako aurrekontu banaketa; urte anitzeko gastuaren izaera izanen dute ondorio guztietarako.

Konpromiso horien egozpena aldatzen ahalko da, ekitaldi desberdinetan egiteko, lanen exekuzioari buruzko aurreikuspenaren arabera, betiere zerbiztu eskudunak txostena eman ondoren”.

Bi. 4. artikulua 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren ataletarako zenbateko osoaren 100eko 5eraino gordeko da larrialdiko eskaeraren kalifikazioa dutenei eta haien inbertsio osagarrii aurre egiteko, edo salbuespeneko araubideko finantzabidea behar duten inbertsioei aurre egiteko”.

Hiru. 5. artikuluar 3. apartatua gehitzen zaio, testu honekin:

“3. Inbertsioa finantzatu bada Toki Inbertsioen Plan honen ekarpenaz gain bestelako diru-laguntza edo laguntzekin, inbertsiorako jaso diren funtsen zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa frogatu beharko dira”.

Lau. 14. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Diruz lagungarria den zenbatekoan sartu beharreko kontzeptuek eta ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoek V. eranskinean xedatutakoarekin bat etorri beharko dute”.

Bost. 16. artikulua 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“2. Libreki erabakitzekoak diren jarduketetarako ez da bideragarritasun ekonomikoaren txostenik beharko, ez eta larrialdiko inbertsioztat kalifikatuetarako ere.

Aurretik zegoen Toki Inbertsioen Planaren indarraldian emandako hasiera-baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioek edo hasteko

baimena 2017-2019 aldirako Inbertsio Planean jaso dutenek bideragarritasun ekonomikoa ez dute berriz frogatu beharko.

3. Inbertsioaren bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioak ebaluazio negatiboa jasotzen badu, toki entitateak hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, erabaki hauekako bat hartu eta Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari jakinarazteko:

A) Inbertsioa bere finantza ahalmenera egokitztea.

B) Finantzaketa-formula alternatibo bat proposatzea.

Baldin eta A) eta B) letretan arautzen den erabakietakoren bat hartzerik ez badago, hau egin daiteke, justifikatu ondoren:

C) Foru lege honen hurrengo artikuluan jasotzen den salbuespeneko araubideari atxikitzea eskatzea.

Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak jotzen badu toki entitateak proposatutako aukerak akatsak dituela, azken epe bat emanen du horiek zuzentzeko, hamar egun baliodunekoa. Epe horretan zuzendu ezean, inbertsioa bideraezina dela ulertuko da”.

Sei. 17. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“1. Salbuespen gisa, toki entitateak hala eskatuta, ekarpenaren zenbatekoa handitzen ahalko da, inbertsioen zenbateko lagungarriaren ehuneko ehuneraino, uraren goi hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko Inbertsioen Programetako eta Toki Programazioko inbertsioetan, BEZa gehituz BEZ kengarria ez duten inbertsioen kasuan, betiere Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak egiaztatzen badu toki entitateak ez duela aski ahalmen ekonomikoa eta finantzarioa inbertsioa zenbateko horri dagokion kopuruan gauzatzea bideragarri egiteko eta inbertsioaren doikuntza ez dela posible.

2. Salbuespeneko araubide horri atxikitzeko, toki entitateek erabakia hartu beharko dute osoko bilkuraren, kontzejuko batzordearen edo batzarraren bidez, ondotik adierazten diren konpromisoak bertan jasota.

A) Salbuespeneko araubidean sartutako inbertsioez bestelako inbertsiorik ez egitea, eta kreditu edo finantza zama berririk ez hitzartzea haien exekuzioaldian zehar, salbu eta Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak berariazko baimena ematen duenean, salbuespeneko inguruabarren ondo-

rioz edo etorkizunerako defizitrik ez ekartzeari buruzko bermea izanik.

B) Baliabide berekiak atxikitzea salbuespeneko araubidean sartzeko aurreikusitako moduan.

C) Aurreko konpromisoez gain, udalek egun indarra duen zerga-tasaren 0,20ko gutxieneko igotzea onetsi eta mantendu beharko dute obraren exekuzioak irauten duen bitartean eta hura amaitu ondoko lau urteetan zehar, eta igotzearen ondoriozko tasa ezin da ezein kasutan izan 0,30 baino gutxiagokoa, ez eta 0,50 baino gehiagokoa ere; horrekin batera, balorazio txostena araudi indardunari jarraituz eguneratu beharko dute. Lurraren gaineko kontribuzioaren zerga-oinarrian ez da murrizketarik onetsiko ez eta aplikatuko ere, balorazio txostenaren eguneratzearen ondoriozko katastro-balorazioaren igotzearengatik.

D) Goiko A) eta B) letretako konpromisoez gain, kontzejuek kontribuzio bereziak edo bizilagunen ekarpenak onetsi beharko dituzte, artikulua honen 4. idatz-zatian aipatzen den foru agindua araberak kalkulaturako oinarri baten gainean lur-ondasunen gaineko kontribuziorako 0,30eko gutxieneko zerga-tasa aplikatzeak sortutako zenbatekoa adinakoa. Eskuordeturik egindako inbertsioen kasuan, kontzejuek ados jarri beharko dute udalarekin, eta akordio baten bidez udalak konpromisoa hartuko du behar den kopurua jartzeko, kontzejuentzat bideragarria izan dadin inbertsioa egitea.

Konpromiso hori onartzeko baldintza izanen da udalarentzat ekonomikoki bideragarria izatea ekarpena egitea. Bideragarria ez bada, udaletarako salbuespeneko araubide honetan araututakoa aplikatuko da”.

Zazpi. 18. artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Inbertsioak ezin izanen dira gehieneko diru-ekarpena finkatu aurretik hasi, salbuespen hauekin:

A) Aurretik zegoen Toki Inbertsioen Planaren indarraldian emandako hasiera-baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioak.

B) Hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera larrialdiko inbertsioaren kalifikazioa dutenak.

C) Hasiera-baimena 22.bis artikuluan xedatutakoaren arabera jaso duten inbertsioak”.

Zortzi. 19. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“19. artikulua. Larrialdiko prozedura.

1. Toki Inbertsioen Planean sartzen ahalko dira foru lege honen 6. eta 11. artikuluetan aurreikusitako azpiegiturak eta ekipamenduak berehalakoan lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak, salbu eta banda zabaleko azpiegituren arloko Inbertsioen Programan sartutakoak, hondamendiak tartean direla egin beharrekoak, edo arrisku larria eragiten duten egoerak edo segurtasun publikoari eragiten dioten beharrak daudelarik.

Prozedura horren bidez sartzen ahalko dira bai Nafarroako kontratu publikoei buruzko legeekin bat larrialdiko kontratazioen bidez egindako inbertsioak, bai izaera hori izan gabe kontratatutakoak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak beharrezkotzat jotzen baditu larrialdiko kontratazioen bidez egindakoak behar bezala osatzeko.

2. Toki entitateak larrialdiko jarduketaren kalifikazioa emateko eskaera aurkeztu beharko du, gertatzen den egunetik hasita hamar egun balioduneko epean gehienez ere, horri erantsirik izaera hori ematea ahalbidetzen duten inguruabarrak frogatzen dituen txosten bat eta gauzatu beharreko jarduketaren hasierako aurreikuspen baloratu bat.

3. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak, ikuskapen bisita egin ondoren, txosten loteslea emanen du, kasuko jarduketari artikuluko honen ondorioetarako larrialdiko kalifikazioa onartzeari edo errefusatzeari buruzkoa, eta, kasua bada, bereizketa egingen du larrialdiko jarduketaren eta horiek osatzeko beharrezkoak diren jarduketaren osagarrien artean.

4. Jarduketa bati larrialdikoaren kalifikazioa Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez emanen zaio.

Jarduerari larrialdikoaren kalifikazioa ematen dion ebazpen horretan berean zehazten ahalko dira beharrezkoak diren jarduketa osagarriak, zerbitzu eskudunak proposatutakoak.

5. Toki entitateak justifikatuko du larrialdiko jarduketa, IV. eranskineko 12. atalean aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz jarduketa amaitu eta hilabeteko epean.

6. Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez finkatuko da larrialdikoaren kalifikazioa duen inbertsiorako gehieneko ekarpen ekonomikoa, foru lege honetan ezarritako prozedura orokorarekin bat, salbu eta toki entitate bakoitzerako dauden mugei dagokiena. Gero ordainketa egingen da.

7. Toki Inbertsioen Planean sartzeko modukoak diren jarduketa osagarriei aplikatuko zaizkie

foru lege honetan kasuko inbertsiorako aurreikusitako betebeharrak juridikoak, teknikoak eta ekonomikoak, salbu eta toki entitate bakoitzaren mugei eta obra hasteko epeari dagokienez, hori Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez ezarriko baita”.

Bederatzi. 22. artikuluan, 4. eta 5. apartatuak aldatzen dira, eta 6. apartatu berria erantsen da. Testu hau izanen dute:

“4. Obrak aurreko apartatuaren ezarritako epeetatik kanpo hasten badira, zehapenak ezartzen ahalko dira, non ez den baimen berezia ematen, salbuespenez eta betiere inbertsioaren erabilera eta helburua babesturik, interes publikoaren mesedetan obrak atzeratzera behartzen duten arrazoiak egoteagatik –toki entitateak frogatutakoak– edo obrek partikularrei eraginak ekarzteagatik. Zehapen horiek eskala hauetan jasotakoak dira:

– Epez kanpo hastea, gehienez ere 15 eguneko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %10.

– Epez kanpo hastea, gehienez ere hilabeteko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %20.

– Epez kanpo hastea, gehienez ere bi hilabeteko atzerapenaz: gehieneko diru-ekarpenaren %50.

Obrak bi hilabetetik gorako atzerapenaz hasten badira, obra osoki utziko da inbertsio-planetik kanpo, foru legearen 27. artikuluan adierazten den moduan.

Gehieneko diru-ekarpenaren gutxitzea artikuluko honetan xedatutakoari jarraituz egiteko, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, toki entitate interesdunari 10 egun baliodunetz entzunaldia emanen dion espediente egokia tramitatu ondoren.

5. Artikulu honen laugarren apartatua aipatzen den baimen bereziaren eskaera beranduenez egingen da obrak hasteko epea amaitu baino 10 egun baliodun lehenago.

6. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, obren hasierako eguna zuinketaren aktan jasotakoa izanen da”.

Hamar. 22. bis artikuluko berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“22. bis artikulua. Hasiera-baimena.

1. Zilegi izanen da gehieneko diru-ekarpena ezarri aurretik eskatzea hasiera-baimena, erreserbako inbertsioen behin betiko zerrendan ageri diren jarduketetarako, behin argitara eman ondo-

ren 10. artikuluko 2. apartatuan eta 15. artikuluko 3. apartatuan jasotzen diren ebazpenak.

2. Toki entitateek IV. eranskinen 13. atalean xedatutakoari jarraikiz aurkeztuko dute dokumentazioa. Bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzeko, kontuan hartuko da inbertsioaren finantzaketa osoa dagokiola toki entitateari.

3. Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten lotesleak eginen dituzte, eduki tekniko, ekonomikoa eta juridikokoak, proiektua eta finantza plana foru lege honetan xedatutakoarekin bat ote datozen erabakitzeko. Txosten guztiak aldekoak baldin badira, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak hasierabaimena emanen du ebazpen baten bidez.

4. Hasiera-baimenak ez du eskubiderik sortzen, ezarritako epeez kanpo obrak hastea izan ezik.

5. Hasiera-baimena urtebetera iraungiko da, baimena ematen duen ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita”.

Hamaika. 23. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“23. artikulua. Exekuzio epeak.

1. Plan honen kargurako zenbatekoak ordaintzearen ondorioetarako, zilegi izanen da inbertsioen exekuzio epeak zehaztea Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez ezartzen den denbora-programazioari jarraikiz.

2. Salbuespen gisa, toki entitateak hala eskatzen badu, horretarako ezarritako epeak luzatzen ahalko dira Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bitartez emandako baimen berezi baten bidez, irizten denean ezen, gerora sortutako arrazoiak direla-eta, ezinezkoa dela inbertsioaren exekuzioa epe barruan amaitzea. Eskatera hori, beranduenez, inbertsioaren exekuzio epeak amaitu baino 10 egun baliodun lehenago egin beharko da”.

Hamabi. 24. artikuluen 2. eta 5. apartatuak aldatzen dira, eta 6. apartatu berria eransten da. Testu hau izanen dute:

“2. Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren atalei dagozkien ekarpenen ordainketa honela eginen da:

- A) %60 obraren hasieran.
- B) %20 obraren erdiak eginak daudenean.
- C) Gainerako %20a, obrak amaituta”.

“5. Obra amaieraren ondoriozko ordainketarako eskaera, IV. eranskinen 5. ataleko C) letran eskatutako dokumentazioarekin batera, hilabeteko epean aurkeztu beharko da, obrak xede duen erabilera publikorako entregatu daitekeela frogatzen duen harrera aktaren dataren biharamunetik kontatzen hasita, are enpresa kontratistaren adostasunik ez dagoenean ere.

Obra-amaieraren justifikazio-agiriak epez kanpo aurkezteak honako eskalan jasotzen diren zehapenak ezartzea ekartzen ahalko du:

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere 15 eguneko berandutzaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %5.

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere hilabeteko berandutzaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %10.

– Epez kanpo justifikatzea, gehienez ere bi hilabeteko berandutzaz: obraren amaierako ordainketari dagokion ekarpenaren %15.

– Bi hilabete baino gehiagoko berandutzaz aurkezten badira justifikazio-agiriak, obraren amaierako ordainketari dagokion zenbatekoa jasotzeko eskubidea galduko da.

6. Artikulu honetan xedatutakoarekin bat obraren amaierako ordainketari dagokion zenbatekoa gutxitzeko, edo obra amaierako ordainketari dagokion zenbatekoa jasotzeko eskubidea kentzeko, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, kasuan kasuko espediente toki entitate interesdunari 10 egun baliodun ezuntzaldia emanda tramitatu ondoren”.

Hamahiru. 27. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“27. artikulua. Toki Inbertsioen Planetik kanpo uztea eta uko egitea.

1. Toki Inbertsioen Planetik erabat kanpo uzteko arrazoiak hauek izanen dira, eta horrek ekarriko du jasotako kopuru guztiak itzuli beharra:

A) Inbertsioa Toki Inbertsioen Planean sartua izateko erabakigarriak izan diren baldintzak urratzea, edo baldintza horiei buruzko informazioa falsutu edo ezkatzea.

B) Obrak bi hilabete baino gehiagoko berandutzaz hastea, foru lege honen 22. artikuluen xedatu bezala.

2. Zilegi izanen da zenbait inbertsio partzialki kanporatzea Toki Inbertsioen Planetik, kasu hauetan:

A) Inbertsioaren exekuziorako ezarritako baldintzak urratzea, urraketa horrek inbertsioaren xedeari edo helburuari kalte egiten dionean.

B) Inbertsioaren gauzatzea justifikatzeko aurkeztutako agiriak aski ez izatea inbertsio osoa behar bezala egin dela frogatzeko.

C) Inbertsioaren exekuzioa amaitzerik ez izatea planean sartua izan eta gerora gertaturikoen gatik.

Aurreko letretako kasuetan, zerbitzu tekniko eskudunek ikuskatuko dute behar bezala justifikatutako obra edo obra zatia, ondorioztatze aldera ea aurreikusitako erabilera publikorako erabiltzeko modukoa den. Eraitza baiezkoa bada, zerbitzu horrek IV. eranskineko 5. ataleko C) letran jasotako dokumentazioaren bidez frogatutzat jotzen duen kostu-zatiari dagokion diru-ekarpina ordainduko da.

D) Inbertsioa salbuespeneko araubidean sartzeko hartutako konpromisoak urratzea.

Urratze horrek berekin ekarriko du araubide horri jarraituz erabakitako kopuru gehigarriak jasotzeko eskubidea galtzea.

E) Inbertsioaren exekuziorako gehieneko epea urratzea, horretarako eskatzen den baimena izan gabe.

F) Obra egiaztagirietan jaso gabeko hobekuntzak sartu edo exekutatzeko.

3. Diru-ekarpina ezarri zuen organo berak emanen du planetik baztertzeko ebazpena, kasuan kasuko espedientea toki entitate interesdunari hamabost egun baliodunetz entzunaldia emanda tramitatu ondoren. Prozeduraren hasierak etenda utziko du ordaintzeko dauden diru-ekarpenetarako eskubidea. Itzulketa exigitzen ahalko da, kasuan kasuko espedientea interesdunetz entzunaldia emanda tramitatu ondoren, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko Funtseko transferentzia arrunten atalaren kargura eginiko konpentsazioaren bidez, udal edo kontzeju direnean, eta ordainketa-gutunaren bidez, gainerrako entitate onuradunen kasuan.

4. Inbertsio osoari uko egiteko, jokatu da administrazio prozedurari buruzko oinarriko legerian ukoen baliozkotasunerako aurreikusitako moduan”.

Hamalau. 28. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Ekarpina beherantz aldatuko da egiazko adjudikazio-zenbatekoa lizitaziokoa baino txikiagoa denean, diruz lagungarria den obraren

egiazko exekuzio-kostua gehieneko diru-ekarpina ezartzean aurreikusitakoa baino txikiagoa suertatzen denean eta foru lege honen 22., 24. eta 27.2 artikuluetan aipaturiko kasuetan.

Horrela libre geratzen diren diru-kopuruak beste inbertsio batzuk finantzatzeko erabiliko dira, aplikatzekoak diren aurrekontu-mugak gainditu gabe, eta inbertsio mota bakoitzerako ezarritako lehentasun ordenari jarraikiz”.

Hamabost. 30. artikuluko 1. eta 5. apartatuak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“1. Libreki erabaki beharrekoen atalean, zeina III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera banatzen baita, sartuta daude udal edo kontzeju onuradun bakoitzak honako zeregin hauetarako erabakitzen dituen jarduketak:

A) Aurreko ekitaldi ekonomikoko kontuetatik eratortzen den diruzaintza-gerakin negatiboa finantzatzea.

B) Aurrekontu-izaerako pasibo finantzarioak garaiz aurretik amortizatzea.

C) 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren babesean emandako hasiera-baimenarekin exekutatutako obrak finantzatzea, bai eta Toki Inbertsioen egungo Planaren indarraldian exekutatutako beharreko obrak ere.

D) Gastu-aurrekontuko sailkapen ekonomikoko 6. kapituluan kontabilizatu beharrekoa den edozein jarduketa finantzatzea”.

“5. Libreki erabaki beharreko jarduketarako foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ordaindutako kopuruak itzultzeko exigituko da, kasuan kasuko espedientea interesdunetz 15 egun baliodunetz entzunaldia emanda tramitatu ondoren. Zilegi izanen da itzulketa hori exigitzea toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko Funtseko transferentzia arrunten atalaren kargura eginiko konpentsazioaren bidez”.

Hamasei. 33. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“33. artikulua. Obren eta material inbentariagarriaren erosketen finantzaketa.

1. Lege honen 30. artikulua 1. apartatuaren C) eta D) letretako inbertsioetarako egokitasun-txostenen eskabideak 2017ko maiatzaren 2a baino lehenago aurkeztu beharko dira, edo kasuko urteko urtarrilaren 31 baino lehenago, 2018an eta 2019an finantzatu beharreko inbertsioen kasuan; horretarako, administrazio prozedura erki-deari buruzko oinarriko legediak ezarritako

baldintzak bete eta IV. eranskineko 7. atalean adierazitako dokumentazioa erantsi beharko da.

Udal edo kontzeju eskatzaile bakoitzak kome-nigarriak iruditzen zaizkion material inbentariaga-riaren inbertsio eta/edo erosketa guztiak sartzen ahalko ditu eskabidean.

Udal batek eskuordeturik dauzkanean kon-tzejuen eskumenak, inbertsioetarako egokitasun-txostenak eskatzen ahalko ditu kontzejuen onera-ko, eta, kasua bada, kasuan kasuko ordainketak eskatu, epe orokorren barruan.

Salbuespen gisa, kontzejuen batek, zerbitzu eskudunaren iritziz justifikatua den arrazoi baten-gatik, ez badu eskatzen ezein egokitasun-txostenik horretarako ezarritako epean, kasuko udalak zilegi izanen du egokitasun-txostenak eskatzea, epe hori amaitzen denetik aurrera hila-beteko epean, kontzeju horri libreki erabaki beha-rrekoen atalean dagokion ekarpena erabiltze alde-ra kontzejurako onuragarriak diren inbertsioetan. Kasu horretan, udalak inbertsioak exekutatu eta ordainketak eskatuko ditu.

2. Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunak eskaeraren egokitasunari buruzko txostena emanen du dokumentazioa aur-kezten den egunetik hilabeteko epean. Epe horre-tan toki entitateari ez bazaio jakinarazten eskaera egokia den edo ez, edo, bestela, ez bazaio zuzen-tzeko errekerimendua jakinarazten, iritzia aldekoa dela ulertuko da.

3. 30. artikuluko 1. apartatuaren C) eta D) letretako inbertsioetarako libreki erabaki beharre-ko ekarpenak ordaintzeko eskaerak aldeko egoki-tasun-txostenak izan behar dituzte, eta epe haue-tan eginen dira:

A) 6. kapituluko obretarako eta jarduketetara-ko, ekarpenak 2018. ekitaldiari esleitutakoak dire-nean, ordainketa-eskaerak aurkezteko muga-eguna 2018ko abenduaren 1a izanen da.

B) 6. kapituluko obretarako eta jarduketetara-ko, ekarpenak 2019. ekitaldiari esleitutakoak dire-nean, ordainketa-eskaerak aurkezteko muga-eguna 2019ko azaroaren 1a izanen da, non eta, albuespen gisa, ez den baimen berezi bat ema-ten, toki entitateak frogatutako inguruabarrak dau-delako, eskaera hori aurkeztea galarazten dute-nak; horrelakoetan, epea urte bereko abenduaren 1a arte luzatzen ahalko da. Baimen berezi hori, beranduenez, ordainketarako eskaerak aurkezte-ko epea amaitu baino 10 egun baliodun lehenago eskatu beharko da.

4. 2019ko ekitaldiari esleitutako ekarpenak ordaintzeko eskaerak 2018ko ekitaldiaren kargura

ordaintzen ahalko dira, aurrekontuko diru erabilga-riaren arabera.

5. Ordaintzeko eskaerak IV. eranskineko 8. atalean eskatutako dokumentazioa erantsita aur-keztuko dira.

6. Jasotako zenbatekoa aurreikusitako xedera-ko erabili dela frogatzeko, ordainketen banku-fro-gagiriak erabili beharko dira. Dagokion zenbate-koa jaso eta hilabeteko epean ere aurkezten ahalko dira froga horiek. Betebehar hori ez bete-tzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak i-tzultzeko prozedurari hasiera ematea.

7. 30. artikuluko 1. apartatuko C) eta D) letreta-ko inbertsioetarako egokitasun-txostenak dituen toki entitateak egiaztatzen badu obrak adjudika-tzeko zailtasunak dituela, edo toki entitatearen borondatearekin zerikusirik ez duen edozein ingu-ruabar suertatzen dela, artikuluko honetako 3. apar-tatuan xedaturiko epea betetzea eragozten duena, eskatzen ahalko du aipatu epea luzatua izan dadi-la ekarpena esleituta daukan urteko abenduaren 31ra arte. Epea betetzea eragozten duten ingu-ruabarrek bere horretan jarraitzen badute, eskatu ahalko du ordainketa hurrengo ekitaldian egitea. Eskabide horiek epeak bete baino 10 egun balio-dun lehenago aurkeztu beharko dira, berandu-enez”.

Hamazazpi. 34. artikuluko 2. apartatua aldatu eta honela geldituko da:

“2. 30. artikuluko 1. apartatuko C) eta D) letre-tako inbertsioak ordaintzeko eskaerak direnean, zuzentzeko errekerimendua ez bada behar bezala bete, eskaera ukatu egin dela ulertuko da. Halere, ordainketa berria eskatzen ahalko da 33. artiku-luan aurreikusitako epeetan”.

Hemezortzi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da, testu honekin:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Plana zabal-tzea.

Nafarroako Gobernuako departamentu eskudu-nak, Toki Araubideko Foru Batzordeak txostena eman ondoren, Toki Inbertsioen Plan honen finan-tzaketa handitzen ahalko du toki entitateek Nafa-rrako tributuetan parte hartzeko Funtseko kapital transferentzien atalari atxikitako diruzaintza-gerakinaren kargura, planean sartzeko modukoak izan arren aurrekontuan diru erabilgarri aski ez egoteagatik lehenago sartuak izan ez ziren inber-tsoiei aurre egiteko”.

Hemeretzi. Bosgarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Entitateen ondorengotza eta titularitate aldaketak.

Toki entitate onuradun baten kasuan kasuko eskumenak betetzeko oinordetza beste entitate batek hartzen badu, bigarrena lehenaren eskubide eta betebeharreran subrogatuko da Toki Inbertsioen Planari dagokionez.

Inbertsioen titularitate aldaketak Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez eginen dira, justifikatu ondoren betiere”.

Hogei. Azken xedapenetako lehena aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Azken xedapenetan lehena. Erregelamendugintzarako gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta toki administrazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari, foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduxedapen guztiak egin ditzaten”.

Hogeita bat. III. eranskina aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“III. eranskina. Libreki erabaki beharrekoen ekarpenak banatzeko irizpideak.

Udal konposatuetan, libreki erabaki beharrekoen ataleko diru-ekarpina kalkulatzeko oinarritzat hartuko den populazioa zehazteko, udalerririk 2015eko urtarrilaren 1ean duen populazio zifra ofizialari deskontatuko zaizkio udalerraren mugartean kokaturiko kontzejuetako populazio zifra ofizialak. Eraitza 10 baino gehiagokoa denean, hurrengo letretan aurreikusitakoari jarraikiz dagoen kopurua aplikatuko zaio.

A) 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk edo kontzejuak.

3.001etik 5.000 biztanlera bitarte: 150.000 euro, toki entitate bakoitzeko.

5.001etik 10.000 biztanlera bitarte: 170.000 euro, toki entitate bakoitzeko.

10.000 biztanle baino gehiago: 190.000 euro, toki entitate bakoitzeko.

Guztira, A) letra honetan aipatzen diren toki entitateei esleitu beharreko zenbatekoa ez da 6.000.000 euro baino gehiagokoa izanen.

B) 3.000 biztanleko edo hortik beherako udalerririk edo kontzejuak.

10etik 50 biztanlera bitarte: 20.545 euro, toki entitate bakoitzeko.

51tik 3.000 biztanlera bitarte: populazioaren arabera proportzioan dagokion zenbatekoa, 51 biztanlekorako 20.589,32 euroko gutxienez 3.000 biztanlekorako 148.000 euroko gehienekora bitarte.

Guztira, B) letra honetan aipatzen diren toki entitateei eta 3.000 biztanleko edo gutxiagoko udal konposatuei esleitu beharreko zenbatekoa ez da 17.000.000 euro baino gehiagokoa izanen”.

Hogeita bi. IV. eranskineko 4., 7., 8. eta 11. apartatuak aldatzen eta 12. eta 13. apartatuak eranstean dira, eta testu hau izanen dute:

“4. Inbertsio Programetako eta Toki Programazioko gehieneko diru-ekarpina zehaztea:

A) Osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak onetsitako exekuzio proiektua.

B) Osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak finantza plana onetsi izanari buruzko ziurtagiria, eranskin honen 11. atalean jasotako ereduaren arabera.

C) Lankidetzak hitzarmenak, halakorik badago, 6. atalean ezarritako edukiarekin”.

“7. Libreki erabaki beharrekoen atalerako ego-kitasun-txostenen eskaerak:

A) Eskabidea, behar bezala betea, non zehaztuko baitira inbertsioa, aurrekontu kalkulatu eta eskatzen den ekarpina.

8. Libreki erabaki beharrekoen atalerako ordainketa eskaerak.

A) 2009-2012 aldirako Toki Inbertsioen Planaren babesean emandako hasiera-baimenarekin exekutaturiko obrak, bai eta Toki Inbertsioen egungo Planaren indarraldian exekutatu beharreko obrak ere:

A.1) Eskabide orria, behar bezala betea.

A.2) Obraren likidazioa, atalez atal zehaztua, edo ziurtagiri partzialak. Zuzendaritza fakultatiborik behar ez duten obretarako, dokumentu horien ordezkiz faktura zehatua aurkezten ahalko da.

A.3) Fakturak

A.4) Egindako jarduketaren deskribapena, haien dokumentazio grafikoarekin batera.

A.5) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzak jaso izanari buruzko ziurtagiria, bai eta onartu zain dauden haietarako eskaerei buruzkoa ere.

A.6) Ziurtagiria, frogatzen duena jarduketaren edo jarduketaren 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren indarraldian gauzatu direla eta foru lege

honen xedapenak betez, salbu eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen exekutaturiko inbertsio hasiera-baimendunetarako.

A.7) Ordainketen banku-frogagiriak.

B) Gastu-aurrekontuko sailkapen ekonomikoko 6. kapituluaren kontabilizatu beharreko edozein jarduketa finantzatzeko:

B.1) Eskabide orria, behar bezala bete.

B.2) Erositako ondasunen zerrenda eta fakturak.

B.3) Egindako jarduketaren deskribapena, haien dokumentazio grafikoarekin batera.

B.4) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzak jaso izanari buruzko ziurtagiria, bai eta onartu zain dauden haietarako eskaerei buruzkoa ere.

B.5) Ziurtagiria, frogatzen duena jarduketa edo jarduketak 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren indarraldian gauzatu direla eta foru lege honen xedapenekin bat.

B.6) Ordainketen banku-frogagiriak”.

“11. Planean sartzeko eskabide ereduak eta inbertsio motaren arabera fitxenak, Toki Programazioaren atalerako; finantza planaren onespeneren ziurtagiriarenak; egokitasun-txostenarenak; eta pasibo finantzarioen garaiz aurreko amortizazioak egiteko ordainketa eskabideenak, libreki erabaki beharrekoen atalerako: Nafarroako Gobernuaren web orrian egonen dira eskuragai.

12. Gehieneko diru-ekarpina ezartzea eta larrialdiko kalifikazioa duten jarduketaren ordainketa:

A) Kontratazio organoak larrialdiko jarduketa onetsi izanaren ziurtagiria.

B) Larrialdiko izaeraren justifikazio tekniko eta juridikoa.

C) Egindako jarduketaren deskribapena, haien dokumentazio grafikoarekin batera.

D) Likidazioa atalez atal, edo faktura xehatua.

E) Fakturak eta ordainketen banku-frogagiriak.

F) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzak jaso izanaren ziurtagiria, bai eta onartu zain dauden haietarako eskaerenak ere.

13. Hasiera-baimena:

A) Osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak onetsitako exekuzio proiektua.

B) Osoko bilkurak, kontzejuko batzordeak edo batzarrak finantza plana onetsi izanari buruzko ziurtagiria, eranskin honen 11. atalean jasotako ereduaren arabera”.

Xedapen gehigarri bakarra. Zabortegiei buruzko jarduketak.

Hiri hondakinen tratamenduaren atalaren barruan, ingurumen arazo larri edo oso larriak dituzten zabortegiei buruzko jarduketetan, alde aurretik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuko Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak txosten loteslea emanda, zilegi izanen da gehieneko ekarpen ekonomikoa igotzea diruz lagungarria den zenbatekoaren % 95eraino, BEZa barne.

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra.

Foru lege honek indarra hartu aurretik tramitatu diren obra hasierako eta obra erdiko ordainketak erregularizatu egiten dira, toki entitateak eskatzen duen hurrengo ordainketaren zenbatekoari %10 gehituz.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenengoa. Arau-garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapen guztiak egiteko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2018ko urriaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu eta 2018ko ekainaren 15eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Nafarroako Foru Komunitatean familia

gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Eskubide Sozialetako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2018ko azaroaren 7ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proposamenari.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako poliziei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2018ko urriaren 4an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek aurkeztu eta 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proposamena presako prozedurari jarraikiz izapidetu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat hasiko da, 2018ko urriaren 26ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzak alda ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzak alda ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nasuvinsaren alokairu-poltsan sartzen diren etxebizitzak alda ditzan, gaur egun eskura dauden etxebizitzak kopurua handitze aldera. Era horretan, alokairu-poltsako etxebizitzak tipologia ugartu egingen da”.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuan herri lanen eskumena duen departamentua premiatzen da azter ditzan zenbait herritan trafikoaren abiadura moteltzeko elementuak paratzearen problematika eta horri buruzko araudia gaurkotzeko aukera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urriaren 4an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuan herri lanen eskumena duen departamentua premiatzen da azter ditzan zenbait herritan trafikoaren abiadura moteltzeko elementuak paratzearen problematika eta horri buruzko araudia gaurkotzeko aukera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko herri lanen eskumena duen departamentua premiatzen du:

1. Arazo hori azter dezan eta neurriak susta ditzan, egokituak gure biztanlegune askoren errealitateari –espaloirik gabeko zeharbideak, %5etik gorako maldak eta bihurtze ugari–, horietatik zirkulatzen duten ibilgailuen abiaduraren moteltzea areagotzeko.

2. Bere araudia gaurkotzeko eta, kasua bada, Estatuaren Errepide-sare Orokorreko ezarritako neurriak jasotzeko aukera azter dezan”.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikorako deialdia segurtasun juridikoz egin dezan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikorako deialdia segurtasun juridikoz egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

2019an Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikoa eginen da.

2018ko apirilaren 17ko 73. Nafarroako Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen 1156/2018 Ebazpena, apirilaren 4koa, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez onesten baitira, batetik, maisu-maistren kidegoan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa-esparruko lanpostuetara sartzeko hautapen prozedura, eta bestetik, maisu-maistren kidegoko karrerako langile funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.

Deialdian 2015eko lan-eskaintza publikoko maisu-maistren kidegoko 73 lanpostuak sartu ziren, hiru urteko epean deitu ezean haiek galtzeko modua zegoela ikusita.

Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen horri buruz

orobat adierazi zen ezen deialdian jasotako lanpostuen eta espezialitateen kopurua handitu eginen dela une honetan izapidetzen ari den aparteko lan-eskaintzatik heldutako lanpostuekin. Lanpostu-kopurua handitzen denean, eskabideak aurkezteko beste epe bat irekiko da, bai izangai berrientzat bai jada hasierako epean izena emandakoek merezimendu berriak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Justizia epaitegiek lan-eskaintza horretan jasota zeuden euskarazko lanpostuak deuseztatu zituzten maisu-maistren kidegorako 2016ko deialditik –deialdia urtarrilaren 10eko 5/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–, “plantilla organikoan izaera horrekin zehaztuta” ez daudela joteagatik.

Horri guztiari gehitu behar zaio aurten bertan Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako lan-eskaintza publikoaren deialdiaren planifikazioak eta garapenak sortutako egoera: hainbat errekurtsio aurkeztu zaizkie justizia epaitegiei eta Nafarroako Gobernuari berari, eta etengabeak izan dira luzamenduak, disfuntzioak, zehaztugabetasunak eta abar.

Ezin da albo batera utzi beste autonomia erkidego batzuen jokabidea ere; izan ere, Nafarroak ez bezala, oso aurreratuta daukate deialdi hori.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du maisu-maistren kidegorako lan-eskaintza publikoa ziurtasun juridikoz egin dezan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du deialdi horrek Nafarroaren eta Nafarroako hezkuntza-sistemaren errealitate soziolinguistikoari erantzun diezaion.

3.- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du azaroa bukatu aitzin ezagutaraz ditzan deialdia, deitu beharreko lanpostu-kopurua, espezialitateak, hizkuntzak eta deialdia garatzeko faseak.

4.- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du oposizioko epaitegiak koordinatuz, kalifikazio-jarraibide eta -iriz-

pide argi eta homogeenok ezar ditzan eta informazio xehakatu eta osoa eman diezaien oposizio-ara aurkezten diren pertsonen.

5.- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du garaiz egin ditzan deialdiaren arauak (esperientziaren balorazioa,

merkezimenduak, aurreko deialdietako emaitzak, kontratazio-zerrendak eta abar), oposizioa egiten duten pertsonen behar bezala ezagutu ahal izan ditzaten.

Corellan, 2018ko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, apustuekin eta, bereziki, kirol apustuekin zerikusia duen guztia arautzeko xedez.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege proiektu bat igor dezan Parlamentura, apustuekin eta, bereziki, kirol apustuekin zerikusia duen guztia arautzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko honako mozio hau aurkezten du, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko:

Nerabeen eta gazteen artean apustuekiko mendekotasuna areagotzen ari delako kezka handitzen ari da azken urteotan. Zenbat eta publizitate gehiago egin eta zenbat eta apustu-lokal

gehiago ireki, gazteek gero eta gehiago parte hartzen dute “substantziarik gabeko mendekotasun” horretan (adituek eta elkarteek izen hori ematen baitiote).

Besteak beste, OME-Osasunaren Mundu Erakundeak berak ere aitortzen du mendekotasun hori gaixotasun bat dela.

Aditu, sendagile, psikiatra, psikologo eta irakaskuntzako profesional asko ari dira ohartarazten gazteentzat zer arriskutsua izan daitekeen apustuekin eta, batez ere, kirol-apustuekin lotura duen guztia.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru lege proiektu bat igor dezan arrazoizko epe batean, apustuekin eta, batez ere, kirol-apustuekin lotura duen guztia arautzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeen inguruetan apustu-establezimenduak eta joko-aretoak irekitzea debeka dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru lege horretan alkoholaren eta tabakoaren baldintza beretan arautu dadin kirol-apustuen publizitatea.

Iruñean, 2018ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu erakunde demokratikoak indarrez hartzea, segurtasun-indarrei eraso egitea edo ordezkari demokratikoei jazarri edo esatea dakarren indarkeriazko ekintza oro.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du erakunde demokratikoak indarrez hartzea,

segurtasun-indarrei eraso egitea edo ordezkari demokratikoei jazarri edo esatea dakarren indarkeriazko ekintza oro”.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela Kataluniako gizartean dauden jarrera politikoen artean hitz egitea eta negoziatzea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak dio beharrezkoa dela Kataluniako gizartean dauden jarrera politikoen artean –independentistak, federalistak, autono-

mistak...– eta Kataluniako erakundeen eta Espainiako Gobernuaren artean hitz egitea eta negoziatzea, dagoen gatazka politikoari konponbide politiko bat eman ahal izan dakion”.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak askatasunarekiko, demokraziarekiko eta eskubide zibil eta politikoen konpromisoa adierazten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak askatasunarekiko, demokraziarekiko eta eskubide zibil eta politikoen konpromisoa adierazi nahi du, elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko apustua berretsi bidenabar, horietatik baitira gatazka politikoak ebazteko bide bakarrak”.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro ere salatu nahi du Kataluniako herritarrek zilegitasunez eta

demokratikoki hautatu zituzten Kataluniako Gobernuaren kideen –eta bestelako indar politiko eta sozialei lotutako pertsonen– behin-behineko espetxeratzeak eta erbesteratzeak dakarten salbuespen demokratikoko egoera. Hartara, horiek denak berehala askatzea beharrezkoa dela adierazi nahi du.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Estatuaren botereak premiatzen dituen errepresio-estrategia albo batera utz dezaten eta elkarrizketaren nahiz errespetuaren bidea

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko urriaren 4an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: "Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan". Mozioa Alberto Catalán Higue-

ras jaunak aurkeztu zuen eta 2018ko irailaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen baita ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomikoz horni ditzan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curriculum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-material suntsikorrak lortzeko zailtasunak dauzkaten ikasleen beharrezko erantzute aldera.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko urriaren 4an egindako bilkuran, adierazi zuen jakinaren ganean dagoela Izquierda-Ezkerako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa erretiratu duela. Mozioaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen zen ikastetxe publikoak behar adina baliabide ekonomikoz horni zitzan, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuko curri-

culum-jarduerak egiteko nahiz beharrezkoak diren eskola-material suntsikorrak lortzeko zailtasunak dauzkaten ikasleen beharrezko erantzute aldera, eta 2018ko urriaren 2ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, erlijio islamikoaren ikasgaiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, erlijio islamikoaren ikasgaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

– 2018-2019 ikasturtean zer ikastetxetan eskaintzen ari da erlijio islamikoaren ikasgaia? Zehaztu ikastetxez ikastetxe, herriz herri eta hizkuntza-ereduz eredu.

– Zein da ikasgela-kopurua? Zer mailatan?

– Zenbat ikasle dago ikasgela bakoitzeko?

– Zenbat pertsona kontratatu dira ikasgaia emateko?

Zehaztu zer titulazio eskatu den, zer kontratazio-molde baliatu den eta ikasgaia zer hizkuntzatan ematen den.

Corellan, 2018ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako garraibideari buruzkoa.

MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, ezgaitasun psikikoa duten pertsonentzako garraibideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun ditzan:

Desgaitasun psikikoa duten pertsonak desgaitasun-zentroetara joateko garraioari dagokionez,

– Nafarroako Gobernuak garraio hori diruz laguntzen al du? Baiezkoan, azaldu zehaztasunez laguntza zertan datzan eta nola eskatu behar den.

– Erkidegoz aldatzea baldin badakar ere diruz laguntzen al da? Adibidez, Cárcargo desgaitu bat Calahorrara joaten baldin bada. Kasu horretan, erkidego mugakideekiko hitzarmenen bat dago. Iraganean ere egon al da?

Iruñean, 2018ko urriaren 3an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Francisco María Irizar Jáuregui jauna Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urriaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Francisco María Irizar Jáuregui foru parlamentari jaunak 2018ko urriaren 3an idazki bat aurkeztu du, zeinean jakinarazten baitu Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartu dela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 32. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honakoa erabakitzen da:

1. Adieraztea Francisco María Irizar Jáuregui jauna Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioan sartzearen berri izan duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Kontuen Ganberaren Datu-babeserako Ordezkaria izendatzea.

2018ko maiatzaren 26an indarrean sartu zen Pertsonak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendu berria, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez. Erregelamendu berri hau aurrerapauso bat da pertsonen eskubideak bermatzeko bidean datu horiek erabiltzen dituzten erakundeen aurrean.

Erregelamendu berrian datu-tratatzerako erantzulearen figura sortzen da, antolakuntzaz arduratuko dena. Berari dagokio neurri egokiak, tekniko zein antolakuntzakoak, aplikatzea, bermatze eta ziurtatze aldera datuen tratamendua erregelamendu horrekin bat datorrela. Figura honekin batera erregelamenduan datu-tratatzerako arduradunak agertzen dira ere, datuak kudeatu eta tratatzeko erakundearen barneko zein kanpoko pertsonak direnak.

Horiekin batera, erregelamenduak datu-babeserako ordezkariaren figura azpimarratzen du, zeina erakundeetan izaera pertsonaleko datuak egoki tratatzen direla bermatzeko giltzarri bat baita. Figura hori Europako Erregelamenduaren 37. eta hurrengo artikuluek arautzen dute, zeinetan funtsean esaten baita erregelamenduak esleitzen dizkion informazio-, aholkularitza- eta gainbegiratze-funtzioak garatzeko beharrezko kualifikazioa eta eskarmentua izan behar dituela, bai eta zuzenean erakundearen goiko maila hierarkikoan eman behar dituela kontuak. Datu-tratamendurako erantzuleak datu-babeserako ordezkariekin harremanetan jartzeko datuak

argitaratuko ditu eta Estatuko Datu-babeserako Agentziari jakinaraziko dizkio.

Arestikoa gorabehera, lehendakaritza honek, erakundearen auditoreei entzun ondoren, indarreko araudia betez eta dagozkion ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

ERABAKI DU:

Lehena.- Kontuen Ganberaren legegari Gemma Angélica Sánchez Lerma andrea erakunde honen Datu-babeserako Ordezkaria izendatzea, zeinak bete beharko baititu arestian aipaturiko 2016/679 Erregelamenduan aurreikusitako aholkularitza- eta gainbegiratze-funtzioak eta baita izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko etorkizuneko Lege Organikoan jasoko direnak ere.

Bigarrena.- Ezartzea izendapen honen iraupea urtebetekoa izanen dela 2018ko urriaren 1etik aitzina, eta Kontuen Ganberaren informatikako langileen beharrezko laguntza teknikoa jasoko duela bere funtzioak betetze aldera. Ordezkariek izanen du, halaber, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko indarreko araudia bete behar dituzten erakundearen langileen lankidetzatza.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Gemma Angélica Sánchez Lerma andreari eta Estatuko Datu-babeserako Agentziari jakinaraztea, bai eta agintzea ere Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga